



SEGURTASUN POLITIKA

Segurtasunaren Eskema Nazionala

BERRIKUSKETA: 02

DATA: 2018/9/28

ORR.: 1 35 tik
22 22tik

Zarauzko Udaleko Segurtasun Politika

Edukia

1	ONARPENA ETA INDARREAN JARTZEA	3
2	ZARAUZKO UDALAREN HELBURUAK ETA XEDEA	4
3	INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKAREN HELBURUAK ETA XEDEA	5
4	HELMENA	8
5	MARKO ARAUEMAILEA	10
6	POLITIKAREN BERRIKUSKETA	12
7	INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKAREN OINARRIAK ETA ILDOAK	13
	7.1 Segurtasun integrala	13
	7.2 Arrisku kudeaketa	13
	7.3 Prebentzioa, erreakzioa eta susperraldia	13
	7.4 Defentsa lerroak	15
	7.5 Aldizka berriz ebaluatzea	15
	7.6 Segurtasuna bereizitako funtzio gisa	16
8	SEGURTASUNAREN ANTOLAKUNTZA	17
	8.1 BATZORDEAK: FUNTZIOAK ETA ARDURAK	17
	8.1.1. Udalbatzarra	17
	8.1.2 Segurtasun Korporatiboaren Batzordea	18
	8.2 ROLAK: FUNTZIOAK ETA ARDURAK	20
	8.2.1 Segurtasun Korporatiboaren Batzordea	21
	8.2.2 Zerbitzu Arduraduna	21
	8.2.3 Informazio Arduraduna	21
	8.2.4 Segurtasun Arduraduna	22
	8.2.5 Sistema Arduraduna	23
	8.2.6 Sistemaren Segurtasunaren Administrazioa	24
	8.2.7 Tratamendu Arduraduna	25
	8.2.8 Datuen Babeserako Ordezkaria	25
9	ARRISKUEN AZTERKETA ETA KUDEAKETA	27
10	INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKAREN GARAPENA	28
	10.1 Garapen tresnak	28
	10.2 Segurtasun arauak onartzea	29
	10.3 Arauak ez betetzeagatik aurreikusitako zigorrak	29
11	INFORMAZIOAREN SAILKAPENA	30
12	DATU PERTSONALAK	31
13	KONTZIENTZIAZIOA ETA FORMAKUNTZA	32
14	LANGILEEN BETEBEHARRAK	33
15	HIRUGARREN ALDERDIAK	34
	ALDAKETEN HISTORIA	35

1 ONARPENA ETA INDARREAN JARTZEA

Segurtasun Korporatiboaren Batzordeak berrikusitako eta Zarauzko Udalbatzak onartutako testua.

Informazioaren Segurtasun Politika hau aipatutako datatik aurrera da eraginkorra; Politika berri batekin ordezkutzen den arte.

Zarauzko Udaleko Segurtasun Politika hau indarrean jartzeak udal departamendu ezberdinetan aurretik egon litezkeen Politikak indargabetzea dakar.

Zarauzko Udalak, bere egoitza elektronikoan, Informazioaren Segurtasun Politikaren dokumentuaren bertsio eguneratua izango du.

2 ZARAUZKO UDALAREN HELBURUAK ETA XEDEA

Zarauzko Udalak, bere interesak kudeatzeko eta bere gaitasunen esparruan, herritarren beharrak eta nahiak asetzen laguntzen duten ekintzak bultzatu eta zerbitzu publikoak eskaintzen ditu. Era berean, Zarauzko Udalean eta herritarren artean teknologia berrien erabilera sustatu nahi da.

Horretarako, herritarrei tramiteak online egiteko aukera ematen zaie, gai publikoetan hauen parte hartzea bultzatzeko eta, honela, demokrazia parte hartzailearen garapena eta jarduera publikoaren eraginkortasuna bermatuko duten parte hartzeko bitarteko berriak ezartzeko.

Lortu nahi diren helburu nagusiak dira:

- Herritarren eta Zarauzko Udalaren arteko harreman elektronikoa bultzatzea.
- Herritarren eta Zarauzko Udalaren arteko harreman honetan beharrezkoa den konfiantza sortzea.

Udal kompetentziak burutzeko, Zarauzko Udalak modu eraginkor eta efizientean babestu behar diren informazio sistemak erabiltzen ditu.

3 INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKAREN HELBUURAK ETA XEDEA

Dokumentu honen helburua da: 39/2015 Legeari, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Ohiko Administrazio Prozedurei buruzkoari eta 40/2015 Legeari, urriaren 1ekoa, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari erreferentzia egiten dioten bitarteko elektronikoen erabileran aplikatu behar den segurtasun politika zehaztea.

Zarauzko Udalak 3/2010 Errege Dekretuak, urtarrilaren 8koak, Segurtasunaren Eskema Nazionala (hemendik aurrera SEN) arautzen duenak zehaztutakoaren arabera informazioaren segurtasun kudeaketa eremu bat ezarri du. Honela, administrazio elektronikoen esparruan, eusten duten informazioa eta sistemak, eta 951/2015 Errege Dekretua, urriaren 23koa, 3/2010 Errege Dekretuaren aldaketa, aktibo estrategiko bezala onartzen dira.

Segurtasunaren Eskema Nazionala informazioa behar bezala babesteko behar diren oinarriko printzipioez eta irizpide minimoek osatuta dago. Administrazio publikoek aplikatuko dute, beren konpetentzietan kudeatzen dituzten bitarteko elektronikoen erabilitako datu, informazio eta zerbitzuetarako sarbidea, osotasuna, benetakotasuna, konfidentzialtasuna, trazabilitatea eta kontserbazioa ziurtatzeko.

Erreferentzia marko hau ezartzearen xedea langile publikoak eta herritarrak kudeaketa esparru seguru bateko zerbitzuetara iritsi ahal izateko oinarriak finkatzea da, beren beharrei aurrea hartuz eta eskubideak babestuz.

Informazioaren Segurtasun Politikak informazioa hainbat mehatxutatik babesten du, informazio sistemen jarraipena bermatzeko, kalte arriskuak minimizatzen eta Zarauzko Udaleko helburuak eraginkortasunez betetzeko.

Segurtasunak, prozesu integral bezala ulertua, informazio sistemekin eta komunikazioekin lotutako teknika, giza, material eta antolakuntza elementu

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 6 35 tik 22 22tik</p>
---	---	--

guztiak hartzen ditu bere baitan. Gainera, ez da produktu bat bezala ulertu behar, etengabeko egokitzapen eta hobekuntza prozesu bat bezala baizik, Zarauzko Udaleko segurtasun kultura ezarriz, kontrolatu, kudeatu eta monitorizatu behar dena.

Era berean, informazioaren segurtasunaren kudeaketa eremuak datu pertsonalen babesaren hartzen du bere baitan eta, 2016/679 Araudian (EB), Europako Parlamentukoan eta Kontseilukoan, 2016ko apirilaren 27koa (hemendik aurrera RGPD), ezarritakoa kontuan hartzen du, baita gai honi buruz legedia nazionalean batzen dena ere.

Informazioaren segurtasunaren kudeaketak azpiegitura eta instalazio orokorrak kontrolatzeko, monitorizatzeko eta zaintzeko ekintzen funtzionamendu egokia eta bermatu behar du. Hauek beharrezkoak dira zerbitzuak behar bezala eskaintzeko. Horretarako, informazioaren segurtasunarekin lotuta, hurrengo helburu orokorrak zehazten dira:

- Informazioaren segurtasunaren kudeaketatik Zarauzko Udalak ezarritako xedea eta helburuak betetzeko laguntza ematea.
- Burututako jardueraren eraginez aplikatu behar diren lege irizpideak betetzeko beharrezko kontrol neurriak izatea, batez ere, datu pertsonalen babesarekin eta zerbitzuak bitarteko elektronikoen bidez eskaintzearekin lotutakoak.
- Informazioaren sarbidea, osotasuna, konfidentzialtasuna, erabilgarritasuna, benetakotasuna eta trazabilitatea ziurtatzea eta, zerbitzuak etengabe eskaintzea, prebentzioarekin arituz, eguneroko jarduera berrikusiz eta gertakariei azkartasunez erantzunez.
- Zarauzko Udaleko informazio baliabideak eta informazio hau prozesatzeko erabilitako teknologia barruko zein kanpoko mehatxuetatik babestea, berariazkoak nahiz ustekabekoak, informazioaren konfidentzialtasuna, osotasuna, erabilgarritasuna,

 <p>ZARAUZKO UDALA</p>	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <p>Segurtasunaren Eskema Nazionala</p>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 7 35 <i>tik</i> 22 22<i>tik</i></p>
---	---	---

benetakotasuna eta legaltasuna ziurtatzeko.

Segurtasun Politika honek, Zarauzko Udaleko agintaritzarekin, ageriko konpromiso bat ziurtatzen du, Politika hau hedatu, finkatu eta betetzeko.

4 HELMENA

Politika hau Zarauzko Udal departamendu guztiek aplikatu eta bete beharko dute, Udal departamendu bezala Eremuak eta Barrutiak, Merkataritza Sozietateak (Zarautz-Lur) eta Bertako Gobernuko Batzordeak erabakitzen duen erakunde oro ulertuta; baita SENk eta DBAOk eragindako baliabide eta prozesuak, barrukoak nahiz hirugarren batekin egindako kontratu edo hitzarmenen bitartez erakundearekin lotuta dauden kanpokoak.

Helmena ikuspegi bikoitz batetik zehaztuko da, alde batetik, antolakuntzarekin lotutakoa eta, bestetik, informazio sistemekin edo helmen funtzionalarekin lotutakoa.

Azken honi dagokionez, Politika hau Zarauzko Udaleko informazio sistemei aplikatuko zaie, eskubideak bitarteko elektroniko bidez erabiltzearekin, betebeharrak bitarteko elektroniko bidez betetzearekin, informazioaren sarbidearekin edo administrazio prozedurarekin lotuta daudenak. Badaude baliabideak administrazioaren eta herritarren artean sortu eta enpresa pribatuek mantentzen dituzten harremanetarako erabiltzen direnak. Departamendu ezberdinek edota udal elkarteek enpresa hauei sortzeko eskatutako aplikazioak eta webguneak dira. Hauei dagokienez, SEN esparruaren barruan sartu beharko lirateke, eta enpresa hauei Zarauzko Udalak, bere erakunde autonomoek eta sozietate publikoek erabiltzen dituzten segurtasun irizpideen inguruan jakinarazi behar zaie, baliabideak segurtasun irizpide hauetara egoki ditzaten.

Antolakuntza ikuspegiari dagokionez, eta SENri lotuta, bere betebeharrak zuzenean Zarauzko Udala eta bere sozietateak uztartzen dituzte.

Integraziorako esfortzu hau lau faktorek eragiten dute:

- Sozietate hauek udaletik abiatzen diren zerbitzuak eta tramiteak eskaintzen dituzte, beraz, ezinbestekoa da sistemen segurtasuna eta

datuen babesa ziurtatzea.

- Segurtasunarekin gertakariren bat jazotzen bada, azken erantzukizuna Udaletxeak berak hartzen du.
- Informazioaren segurtasunarekin lotutako arau, irizpide eta ardura edo erantzukizun partekatu batzuk finkatzeak kohesio handiagoa eta zerbitzu hobea lortzen laguntzen du.
- Sozietate hauetan, herritarrek Zarauzko Udalaren presentzia hautematen dute eta, jardueraren azken erantzukizuna berari egozten diote.

SENren helmenak eragin dien Zarauzko Udaleko kide guztiek Segurtasun Politika hau ezagutu eta bete behar dute, baita bere osagarria den Segurtasun Araudia ere. Hori dela eta, Segurtasun Korporatiboaren Batzordearena da eragindako langileei informazioa heltzeko beharrezko bitartekoak izatearen erantzukizuna.

5 MARKO ARAUEMAILEA

Informazioaren Segurtasun Politikaren arloan, Zarauzko Udaleko jardueraren marko arauemailea hurrengo arauetz osatuta dago:

- 7/1985 Legea, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituena.
- 2016/679 Araudia (EB), Europako Parlamentukoa eta Kontseilukoa, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoen babesari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta hauen zirkulazio askeari dagokionez, eta 95/46/CE Zuzentaraua indargabetzen duena.
- 34/2002 Legea, informazio gizarteko zerbitzuei eta komertzio elektronikoari buruzkoa.
- 33/2003 Legea, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa.
- 7/2007 Legea, apirilaren 12koa, Langile Publikoaren Oinarriko Estatutuari buruzkoa.
- 59/2003 Legea, abenduaren 19koa, sinadura elektronikoari buruzkoa.
- 1553/2005 Errege Dekretua, abenduaren 23koa, nortasun agiri nazionala eta sinadura elektronikoaren ziurtagiriak arautzen dituena.
- 25/2007 Legea, komunikazio elektronikoekin eta komunikazio sare publikoekin lotutako datuak kontserbatzeari buruzkoa.
- 57/2003 Legea, abenduaren 16koa, tokiko gobernua berriztatzeko neurriei buruzkoa.
- 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duena.
- 951/2015 Errege Dekretua, urriaren 23koa, 3/2010 Errege Dekretua, urtarrilaren 8koa aldatzen duena, Administrazio Elektronikoaren esparruan Segurtasunaren Eskema Nazionala arautzen duena.

- 4/2010 Errege Dekretua, Administrazio Elektronikoaren esparruan Barne jarduerarako gaitasunaren Segurtasunaren Eskema arautzen duena.
- 9/2017 Legea, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoa.
- 19/2013 Legea, gardentasuna, informazio publikorako sarbidea eta gobernu onari buruzkoa.
- 27/2013 Legea, Tokiko Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzkoa.
- 9/2014 Legea, Telekomunikazioen lege Orokorra.
- 8/2014 Errege Dekretua, hazkunderako, lehiakortasunerako eta efizientziarako premiazko neurrien onarpenari buruzkoa.
- 18/2014 Legea, hazkunderako, lehiakortasunerako eta efizientziarako premiazko neurrien onarpenari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Ohiko Administrazio Prozedurari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, Sektore Publikoko Araubide Juridikoari buruzkoa.

Era berean, bere gaitasun eremuan Zarauzko Udalaren jarduera arautzen duten hainbat arau aplikatuko dira; baita Korporazioak kudeatutako bitarteko elektronikoetan erabilitako datu, informazio eta zerbitzuetarako sarbidea, osotasuna, erabilgarritasuna, benetakotasuna, konfidentzialtasuna, trazabilitatea eta kontserbazioa ziurtatzera zuzendutako arauak ere.

6 POLITIKAREN BERRIKUSKETA

Politika hau Zarauzko Udaleko **Segurtasun Korporatiboaren Batzordeak** proposatu eta berrikusi du, 1503 zenbakidun Dekretuaren, 2018ko urriaren 25ekoaren bitartez onartua izan da, eragindako alderdi guztiek ezagutu dezaten.

Politika hau gutxienez urtean behin eta, udal erakundearen aldaketa garrantzitsuak dauden bakoitzean berrikusiko da, erakundearen estrategia eta beharretara egokitzen dela ziurtatzeko helburuarekin.

Politika honen aurrean gatazkak edo interpretazio berdinak egonez gero, Udalbatzarekin harremanetan jarriko da, gatazkak ebazteko asmoz, aurrez Segurtasun Korporatiboaren Batzordeak proposamen txosten bat eginik.

7 INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKAREN OINARRIAK ETA ILDOAK

.....

7.1 Segurtasun integrala.

Segurtasuna informazio sistemekin lotutako teknika, giza, material eta antolakuntza elementuez osatutako prozesu integral gisa ulertuko da.

7.2 Arrisku kudeaketa.

Arriskuen azterketa eta kudeaketa segurtasun prozesuaren ezinbesteko zatia izango da eta, etengabe eguneratu beharko da; kontrolatutako esparru bat kontrolatzeko aukera izanez, arriskuak onargarriak diren mailetara txikituz.

7.3 Prebentzioa, erreakzioa eta susperraldia.

Sistemaren segurtasunak prebentzioaren, detekzioaren, erantzunaren eta suspertzearen alderdiak kontuan izan behar ditu, mehatxuak ez hezurmamitzeko, edota hezurmamitzen badira, erabiltzen duen informazioari edo eskaintzen dituen zerbitzuei kalte larririk ez eragiteko.

Zarauzko Udalak, ahal duen neurrian, segurtasun gertaerek informazioari edo zerbitzuei kalteak eragitea saihestu behar du. Horretarako, ardura duten organoek, automatizatutako tratamenduetarako SENak eta RLOPDk zehaztutako neurriak indarrean jarri behar dituzte.

Halaber, 2016/679 Araudiko 32. artikuluan zehazten diren neurriak kontuan izan beharko lirateke, automatizatutako tratamenduen arriskuetaarako segurtasun

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 14 35 tik 22 22tik</p>
---	---	---

maila aproposa bermatu beharko dutenak, baita mehatxu eta arriskuen ebaluazio baten bitartez identifikatutako edozein kontrol ere.

Kontrol hauek eta langile guztien rolek eta segurtasun ardurek, argi eta garbi zehaztuta eta dokumentatuta egon behar dute, bereziki:

- Informazioaren Segurtasun Politika beteko dela bermatzeko, erantzukizuna duten organoek:
 - Eragiketan edo lanean hasi aurretik, sistemak edo zerbitzuak **baimendu** behar dituzte.
 - **Segurtasuna maiz ebaluatu** behar dute, baita ohikeriazko konfigurazio aldaketak ere.
 - Hirugarren batek SEN betetzearen inguruan aldizkako berrikusketa egitea eskatu behar dute.
- Dezelerazio batetik etetera arte jazo daitezkeen gertaeren eraginez sistemak eta zerbitzuak bizkor degradatu daitezkeenez, erantzuleak diren zuzendaritza organoek **modu jarraituan monitorizatu behar dute eragiketa**, zerbitzu eskaintzaren mailan arazoak detektatzeko eta SENeko 9. artikuluan ezarritakoaren arabera jarduteko.

Degradazioa segurtasun gertaeren ondorioz ematen bada, erantzule diren organoek segurtasun arduradunari iritsiko zaizkion informe mekanismoak ezarri beharko dituzte.

- Erantzule diren organoek mekanismoak ezarri behar dituzte segurtasun gertaerei eraginkortasunez erantzun ahal izateko.

Zerbitzu kritikoaren erabilgarritasuna bermatzeko asmoz, erantzule diren organoek IKT sistemen jarraipen planak kontuan izan behar dituzte, negozioaren jarraipenerako eta suspertze jardueretarako plan orokorraren parte bezala.

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 15 35 tik 22 22tik</p>
---	---	---

7.4 Defentsa lerroak.

Sistemak babes estrategia bat izan behar du, segurtasun geruza askorekin osatutakoa, geruza hauetako batek kale egiten duenean:

- Erreakzio apropos bat izateko denbora irabazteko aukera ematen du.
- Sistema bere osotasunean arriskuan jartzeko probabilitatea murrizteko aukera ematen du.
- Sistemarengan dagoen amaierako inpaktua minimizatzeko aukera ematen du.

7.5 Aldizka berriz ebaluatzea.

Segurtasun neurriak aldiari aldiari berriz ebaluatu eta eguneratu egingo dira, bere eraginkortasuna arriskuen eta babes sistemen etengabeko eboluziora egokitzeko; behar izanez gero, segurtasuna berriz antolatuko da.

 <p>ZARAUZKO UDALA</p>	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <p>Segurtasunaren Eskema Nazionala</p>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 16 35 tik 22 22tik</p>
---	---	--

7.6 Segurtasuna bereizitako funtzio gisa.

Informazio sistemen segurtasunaren erantzukizuna zerbitzuak eskaintzearen gaineko erantzukizunetik bereizia egongo da: erabilitako informazioaren baldintzak zehaztuko dituen, Informazio arduraduna izango da; eskaintako zerbitzuen baldintzak zehaztuko dituen, Zerbitzu arduraduna izango da eta, informazioaren eta zerbitzuen segurtasun baldintzak asetzeko erabaki teknikoak zehaztuko dituen, Segurtasun arduraduna izango da.

8 SEGURTASUNAREN ANTOLAKUNTZA

Segurtasunaren antolakuntza, sistemen segurtasuna eta eutsiko dituen egitura bati dagozkion jardura eta ardura ezberdinak identifikatu eta zehaztearen bitartez ezartzen da.

Orokorrean, Zarauzko Udaleko informazio sistemen erabiltzaile guztiak dira informazio aktiboaren segurtasunaren erantzule, hauek behar bezala erabiliz, beti, atribuzio profesional eta akademikoekin bat etorritik.

Segurtasun gertaeren aurrean erantzun hobea izateko, Zarauzko Udalak agintari eskudunekin, zerbitzu informatiko edo komunikatiboaren hornitzaileekin eta informazio sistemen segurtasuna sustatzen duten erakunde publiko nahiz pribatuekin, kooperazio harremana mantenduko du.

Bereziki, informazioaren segurtasunaren kudeaketaren erantzukizuna, pertsona talde baten eta funtzio zehatz, definitu eta dokumentatuak dituen batzorde batena da.

8.1 BATZORDEAK: FUNTZIOAK ETA ARDURAK

Politika hau oinarritzat hartuta, segurtasunaren antolakuntzak Segurtasun Korporatiboaren Batzordeko barne kudeaketa zehazten du, kide guztiak identifikatuz eta arduradun bakoitzaren atribuzioak eta koordinaziorako eta gatazken ebazpenerako mekanismoak zehaztuz.

8.1.1. Udalbatzarra.

Informazioaren segurtasunaren kontuetan, Zarauzko Udalbatzak funtzio

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 18 35 tik 22 22tik</p>
---	---	---

hauek ditu:

- Zarauzko Udaleko Informazioaren Segurtasun Politika eta aurretik egon denaren osagarria den edozein sektore politika onartzea; Sektore politika honek Segurtasunaren Eskema Nazionala eta Datuen Babesaren Barne jarduera eta Araudi Orokorra bete behar ditu.
- Segurtasun Korporatiboaren Batzordeak proposatutako antolakuntza garapena onartzea.
- Segurtasun Korporatiboaren Batzordeko kideen izendatzea eta kargu uztea.
- Informazioaren segurtasunaren kontuetan, Segurtasun Korporatiboaren Batzordeak proposatutako neurri egokiak hartzea.
- Zarauzko Udaleko Datuen Babeserako Ordezkarria izendatzea.

8.1.2 Segurtasun Korporatiboaren Batzordea.

Segurtasun Korporatiboaren Batzordeak, 1503 Zenbakidun Dekretuaren bitartez onartuak, 2018ko urriaren 25ekoa, Zarauzko Udaleko informazioaren segurtasuna koordinatzeko ardura edo erantzukizuna dauka eta gobernu organoak honen inguruan informatuko ditu.

Honekin osatuta dago:

- ✓ Zerbitzu Arduraduna.
- ✓ Informazio Arduraduna.
- ✓ Segurtasun Arduraduna.

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 19 35 tik 22 22tik</p>
---	---	---

- ✓ Sistema Arduraduna.
- ✓ Sistemen Segurtasunaren administratzailea.
- ✓ Datuen Babeserako Ordezkarria (DBO-DPO).

Segurtasun Korporatiboaren Batzordeak funtzio hauek izango ditu:

- Zarauzko Udaleko Informazioaren Segurtasunaren Kudeaketa Sistemaren etengabeko hobekuntza sustatzea.
- Informazioaren segurtasunari dagokionez, Zarauzko Udaleko eboluzio estrategia egitea.
- Informazioaren segurtasun kontuetan, arlo ezberdinetako esfortzuak koordinatzea, era honetan, esfortzu hauek trinkoak direla eta erabakitako estrategiarekin bat datozela ziurtatzeko eta, bikoiztasunak saihesteko.
- Informazioaren Segurtasun Politika sortzea (eta maiz berrikustea) Udalbatzak onartu dezan.
- Informazioaren Segurtasun Araudia onartzea.
- Informazioaren segurtasunaren ikuspegitik, administratzaile, langile eta erabiltzaileen formakuntza eta kalifikazio baldintzak sortu eta onartzea.
- Zarauzko Udalak bere gain hartutako hondar arrisku nagusiak monitorizatu eta hauek konpontzeko egin daitezkeen jarduerak gomendatzea.
- Segurtasun gertaeren kudeaketa prozesuaren jarduera monitorizatzea eta honi buruzko jarduerak gomendatzea. Bereziki, informazioaren segurtasun gertaeren kudeaketako segurtasun arlo ezberdinen arteko koordinazioa zaintzea.

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 20 35 tik 22 22tik</p>
---	---	---

- Segurtasunari dagokionez erakundeak bere eginkizunak betetzen dituen egiaztatzeko aukera ematen duten segurtasunaren aldizkako auditoretzak egitea bultzatzea.
- Zarauzko Udaleko informazioaren segurtasunerako hobekuntza planak onartzea, eta batez ere, arlo ezberdinetan garatu daitezkeen plan ezberdinen arteko koordinazioa zaintzea.
- Baliabideak mugatuak direnean, segurtasunari dagozkion jardueri lehentasuna ematea.
- IKT proiektu guztietan, hasierako zehaztapenetik martxan jarri arte, informazioaren segurtasuna kontuan hartu dadin zaintzea. Batez ere, bikoiztasunak murrizten eta sistema guztien funtzionamendu homogeneoa babesten duten zerbitzu horizontalak sortu eta erabili daitezzen zaintzea.
- Arduradun ezberdinen artean ager daitezkeen erantzukizun gatazkak ebaztea, erabakitzeke ahalmen nahikoa ez dagoen kasuak aurkeztuz.
- Udalbatzari, aldizka, informazioaren segurtasunaren egoeraren inguruko informazioa ematea.

8.2 ROLAK: FUNTZIOAK ETA ARDURAK

Politika hau oinarritzat hartuta, segurtasunaren antolakuntzari buruzko dokumentu bat egongo da, non arduradun ezberdinen funtzioak bilduko diren, baita hauen izendatze eta kargu uzterako mekanismoak ere.

Zarauzko Udaleko segurtasun arduradunak hauek dira:

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 21 35 tik 22 22tik</p>
---	---	---

8.2.1 Segurtasun Korporatiboaren Batzordea

Segurtasun Korporatiboaren Batzordeko kide bakoitzaren funtzioak eta ardurak hauek izango dira:

8.2.2 Zerbitzu Arduraduna:

SENean zehaztutakoaren arabera, segurtasunari dagokion zerbitzuaren baldintzak ezartzeko boterea dauka, hau da, zerbitzuen segurtasun mailak zehazteko boterea.

Bere funtzioak dira:

- Segurtasunari dagokion zerbitzuaren baldintzak ezartzea, barne jarduerari, irisgarritasunari eta erabilgarritasunari dagozkionak barne.
- Zerbitzuen segurtasun mailak zehaztea.
- Zerbitzuaren segurtasun maila formalki onartzea.

8.2.3 Informazio arduraduna:

SENean zehaztutakoaren arabera, segurtasunari dagokion informazioaren baldintzak ezartzeko boterea dauka, hau da, informazioaren segurtasun mailak zehazteko boterea.

Informazio Arduradunak informazio jakin batekin egiten denaren erantzukizuna dauka eta, ondorioz, bera babestekoa; konfidentzialtasun edo osotasun gertakari bat eragiten duen edozein akats edo zabartasunen erantzule izango da.

Bere funtzioak dira:

- Informazioaren erabilera aproposa zaintzea eta berau babestea.
- Konfidentzialtasun edo osotasun gertakari bat eragiten duen edozein akats edo zabartasunen erantzule izatea.
- Segurtasunari dagozkion informazio baldintzak ezartzea.
- Informazioaren segurtasun mailak zehaztea.
- Informazioaren segurtasun maila formalki onartzea.

8.2.4 Segurtasun Arduraduna:

Zarauzko Udaleko informazio sistemen segurtasunarekin lotutako funtzioak beteko ditu, zeinek Zarauzko Udalean erabilitako informazioaren eta zerbitzuen segurtasun baldintzak asetzeko erabakiak zehaztea barne hartzen duen. Segurtasunaren Eskema Nazionalean (RD 3/2010) azaltzen den "Segurtasun Arduradunaren" baliokidea da.

Bere funtzioak dira:

- Erabiltzen den informazioaren eta sistemek eskaintzen dituzten zerbitzuen segurtasun maila apropos bat mantentzea.
- SENk derrigortzen dituen aldizkako auditoretzak egin edo bultzatzea, SENeko baldintzak betetzen direla egiaztatzeko.
- IKTen segurtasunari dagozkion formakuntza eta kontzientziaioa kudeatzea.
- Indarrean dauden segurtasun neurriak erakundearen beharretarako

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 23 35 tik 22 22tik</p>
---	---	---

aproposak direla egiaztatzea.

- Sistemaren segurtasunarekin lotutako dokumentazio guztia berrikusi, osatu eta onartzea.
- Segurtasun gertakizunen kudeaketa tresnek eta sisteman inplementatutako auditoretza mekanismoek emandako sistemaren segurtasun egoera monitorizatzea.
- Segurtasun gertakariak, jakinarazten direnetik ebazten direnera arte, babestu eta gainbegiratzea, Batzordeari, aldizka, nabarmenen inguruko txostenak igorritz.

8.2.5 Sistema Arduraduna:

Pertsona hau sistemaren eragiketen arduraduna izango da, eta bere funtzioak hauek izango dira:

- Informazio sistema kudeatzea, bere bizi ziklo osoan zehar, zehaztapen eta instalazio unetik bere funtzionamenduaren jarraipenera arte.
- Erabilera irizpideak eta Sisteman eskuragarri dauden zerbitzuak zehaztea.
- Erabiltzailearen Sistemarako sarbide politikak zehaztea.
- Sistemaren eragiketa moduaren segurtasunari eragiten dioten aldaketak onartzea.
- Sisteman erabiliko diren hardware eta softwaren baimendutako konfigurazioa zehaztea eta, konfigurazio horren aldaketa garrantzitsuak onartzea.

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 24 35 tik 22 22tik</p>
---	---	---

- Sisteman arriskuen azterketa eta kudeaketa burutzea.
- Sistemaren segurtasunaren dokumentazioa sortu eta onartzea.
- SENeko I Eranskinean deskribatutako prozeduraren arabera Sistemaren kategoria zehaztea eta, II Eranskinean deskribatutakoaren arabera, aplikatu beharreko segurtasun neurriak zehaztea.
- Sistemaren segurtasun neurri zehatzak ezarri eta kontrolatzea.
- Kontingentzia eta larrialdi planak ezartzea, langileak ohitzeko helburuarekin, maiz ariketak aurrera eramanez.
- Ezarritako baldintzak betetzerakoan eragin dezaketen segurtasun gertakari larriak hautemanez gero, informazio jakin bat erabiltzeari edo zerbitzu zehatz bat eskaintzeari uztea.

8.2.6 Sistemaren Segurtasunaren Administrazioa

Aurreko arduradunek zehaztutako segurtasun funtzionaltasunak kudeatuko ditu. Bere funtzioak dira:

- Informazio Sisteman aplikagarriak diren segurtasun neurriak inplementatu eta kudeatzea, eta hauen mantentze lanak egitea.
- Informazio sistemaren segurtasun mekanismo eta zerbitzuetan oinarritutako hardware eta softwareak kudeatu, konfiguratu eta eguneratzea.
- Sistemako erabiltzaileei emandako baimenak kudeatzea, batez ere, emandako pribilegioak, sisteman garatutako ekintzak baimendutakoarekin bat datozen monitorizazioa barne hartuz.
- Segurtasunaren Eragiketa Prozedurak aplikatzea.

	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 25 35 tik 22 22tik</p>
---	---	---

- Informazio Sisteman indarrean dagoen konfigurazioko aldaketak onartzea.
- Ezarritako segurtasun kontrolak zorrozki betetzen direla ziurtatzea.
- Informazio sistema erabiltzerakoan onartutako prozedurak aplikatzen direla ziurtatzea.
- Hardware eta software instalazioak, hauen aldaketak eta hobekuntzak gainbegiratzea, segurtasuna arriskuan jartzen ez dela eta, uneoro, indarrean dauden baimenekin bat datozela ziurtatzeko.
- Segurtasun gertakizunen kudeaketa tresnek eta sisteman implementatutako auditoretza mekanismoek emandako sistemaren segurtasun egoera monitorizatzea.
- Segurtasunaren eta Sistema Arduradunak segurtasunarekin lotutako edozein arazo, arrisku edo ahultasunen inguruan informatzea.
- Segurtasun gertakarien ikerketa eta ebazpenean kolaboratzea, detektatzen diren unetik ebazten direnera arte.

8.2.7 Tratamendu Arduraduna

DBAOean zehaztutakoarekin bat etorriz, tratamenduaren helburuak eta bitartekoak zehazten dituen pertsona fisiko edo juridikoa, agintari publikoa, zerbitzua edo bestelako erakunde bat, bakarrik edo beste batzuekin batera.

8.2.8 Datuen Babeserako Ordezkaria

Datuen Babeserako Araudi Orokorreko 39. artikulua bere baitan hartzen

 <p>ZARAUZKO UDALA</p>	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <h2>Segurtasunaren Eskema Nazionala</h2>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 26 35 tik 22 22tik</p>
---	---	--

dituen funtzioak ditu.

- Tratamendu arduraduna informatu eta aholkatzea.
- Arduradunak DBAO betetzen dela gainbegiratzea. Hurrengoa barne hartuz:
 - Arduren esleipena
 - Langileen kontzientziazioa eta formakuntza
 - Egoki diren auditoretzak
- Inpaktuaren Eboluzioen inguruan aholkatzea eta hauen aplikazioa gainbegiratzea.
- Kontrol agintaritzarekin kontaktu puntu gisa kooperatu eta jardutea.

9 ARRISKUEN AZTERKETA ETA KUDEAKETA

Politika honen menpe dauden sistema guztiek arriskuen analisi eta kudeaketa bat jasan beharko dute, aktiboak, mehatxuak eta ahultasunak ebaluatuz eta, arrisku horiek arintzeko neurriak proposatuz. Sistemetan egindako aldaketak etengabe kontrolatu behar diren arren, azterketa hau errepikatuko da:

- Aldizka, gutxienez urtean behin.
- Eskainitako informazioa edota zerbitzuak aldatzen direnean,
- Kalte larria eragiten duen segurtasun gertakari bat jazotzen denean, honakotzat 3/2010 Errege Dekretuan, urtarrilaren 8koan, zehazten dena ulertuta.
- Kalte larria eragin dezaketen ahultasunak hautematen direnean, honakotzat 3/2010 Errege Dekretuan, urtarrilaren 8koan, zehazten dena ulertuta.

Arriskuen azterketa eta kudeaketarako Mageriten oinarritutako metodologia bat erabili da, zeinen parametro nagusiak aktiboaren balioa, mehatxua egi bihurtzeko probabilitatea eta aktiboaren gaineko inpaktua diren.

Onargarria den gehieneko arrisku maila aukeratutako metodologian oinarrituta ezarri da eta, arriskua arintzeko garatuko diren planen hobekuntza helburu bezala erabiliko da. Politikaren atal honetan esandakoaren osagarri gisa, arrisku atalasea, arrisku matrizea (mehatxu eta inpaktu probabilitatea) eta Zarauzko Udalean ezinbestekoak ez diren aktiboen gainean egindako arrisku kudeaketa kontsulta daitezkeen "Excel" formatuko dokumentu bat dago.

(Kontsultatu "Matriz_Riesgo- Ayto. Zarautz.xlsx")

10 INFORMAZIOAREN SEGURTASUN POLITIKAREN GARAPENA

Jarraian, Zarauzko Udalak Segurtasun Politika hau eta gehigarri bezala duen Segurtasun araudia modu efizientean kudeatzeko osatu beharko dituen oinarizko lerroak ezartzen dira.

10.1 Garapen tresnak

Zarauzko Udaleko Informazioaren Segurtasun Politika, hau osatuko duen segurtasun araudi baten bitartez garatuko da. Gainera, arlo edo alderdi zehatz bateko informazioaren segurtasun arau zehatzak erregulatuko ditu, Segurtasun Korporatiboaren Batzordeak onartuak. Besteak beste:

- Ekipoak, zerbitzuak eta instalazioak behar bezala erabiltzea.
- Erabilera desegoki bezala hartuko dena.
- Langileek arau hauek bete edo haustearen inguruan duten ardura: indarrean dagoen legediarekin bat datozen eskubideak, betebeharrak eta diziplinazko neurriak.
- Segurtasun osagarrien araudi teknikoa.

Segurtasun Arduradunak jarduera eremu zehatz bateko prozesuak, TIK prozedurak edo TIK jarraibide teknikoak onartu ahal izango ditu.

Segurtasun araudia udal intranetean eskuragarri egongo da, ezagutzeko beharra duten udal erakundeko kide guztientzat, bereziki, informazio edo komunikazio sistemak erabili, landu edo administratzen dituztenentzat.

(Politika hau garatzen duten arau eta prozedura katalogoa dokumentu honetan deskribatzen da: "Documentación de Seguridad- Ayto. Zarautz.docx", era berean, barne araudia dokumentu honetan dago eskuragarri: "Normativa Interna de Seguridad- Ayto. Zarautz.docx")

 <p>ZARAUZKO UDALA</p>	<h1>SEGURTASUN POLITIKA</h1> <p>Segurtasunaren Eskema Nazionala</p>	<p>BERRIKUSKETA: 02 DATA: 2018/9/28 ORR.: 29 35 tik 22 22tik</p>
---	---	--

10.2 Segurtasun arauak onartzea

Udal erakunde guztian, segurtasun arau teknikoak politika honetan esandakoarekin bat etorri onartuko dira.

10.3 Arauak ez betetzeagatik aurreikusitako zigorrak

Informazioaren Segurtasun Politika eta osatzen duten arauak ez betetzeak diziplina erantzukizunak ekar ditzake. Erantzukizun hauek langile publikoen diziplina erregimenean oinarritutako araudian ezarritakoaren arabera zehaztuko dira.

11 INFORMAZIOAREN SAILKAPENA

Sentikortasunean oinarrituta, erakundeak erabilitako informazio mota ezberdinak identifika ditzakeen Zarauzko Udaleko Informazioaren sailkapen bat burutu da; eusten duten euskarriak nola etiketatu zehaztuko du eta, baita sailkapen maila bakoitzarekin zer egin daitekeen eta zer ez zehaztu ere.

Dokumentazioaren sailkapen prozedura Zarauzko Udaleko ezinbesteko informazioari egindako baloraziotik abiatu da, "sentikortasun" arloaren bidez ezarria. Prozedura hau "Categorización - Ayto.Zarautz.docx" dokumentuko 2.3 atalean deskribatzen da.

Informazioa 3 esparrutan sailkatzen da:

- Informazio publikoa: edozein hedabidetan argitaratu daitekeen informazioa, beti ere, honek Zarauzko Udaleko informazioari inongo arriskurik eragin gabe.
- Informazio pribatua (barne erabilerarako): Zarauzko Udaleko langileek soilik izan dezaketen informazioa.
- Informazio konfidentziala: Alkatetzak edota Zarauzko Udaleko Udal zerbitzu zehatz bateko ordezkariak edo langileek soilik jakin dezaketen informazioa.

(Informazioaren sailkapen politika hau dokumentu honetan garatzen da: "Categorización - Ayto. Zarautz.docx")

12 DATU PERTSONALAK

DBAOean eta legedi nazionalean barne hartzen dena aplikatuko da.

Zarauzko Udaleko udal zerbitzuen departamendu bakoitza arduratuko da, bere erantzukizuna diren tratamendu eragiketetan barne hartutako datu pertsonalen segurtasuna kudeatu eta mantentzeaz.

Datu pertsonalen babes neurriak Datuen Babeserako Araudi Orokorrean aurreikusitako Arriskuaren Azterketa eta Inpaktuaren Ebaluazioaren emaitzetatik abiatuta ezarriko dira.

Zarauzko Udaleko informazio sistema guztiak araudi honek eskatzen dituen segurtasun mailekin bat etorriko dira.

13 KONTZIENTZIAZIOA ETA FORMAKUNTZA

Segurtasun prozesuan esku hartzen duten pertsonen eta hauen arduradun hierarkikoen kontzientziazioari arreta handia eskainiko zaio, ezjakintasuna, antolakuntza eta koordinazio eza edo jarraibide desegokiak informazio sistemen segurtasunerako arrisku iturriak izan ez daitezen.

Informazioarekin eta sistemekin harremana duten langile guztiak segurtasunaren inguruan dituzten eginkizun eta betebeharren jakinaren gainean egon behar dute. Hauen jarduerak gainbegiratu egin behar dira, ezarritako segurtasun prozedurak jarraitzen direla egiaztatzeko.

Zarauzko Udaleko langileek eskaintzen dituzten sistema eta zerbitzuetan aplikagarriak diren informazio teknologien segurtasuna bermatzeko beharrezkoa den formakuntza eta informazio zehatza jasoko dute.

Zarauzko Udaleko kide guztiei zuzendutako etengabeko kontzientziazio programa bat ezarriko da, bereziki, langile berriei zuzendutakoa.

Sistemen segurtasuna, langile gaituek, dedikatuek eta bizi ziklo osoko fase guztietan eskolatuak direnek artatu, berrikusi eta ikuskatuko dituzte: instalazioa, mantentze lanak, gertakizunen kudeaketa eta desegitea.

(Kontzientziazio eta formakuntza politika hau dokumentu honetan garatzen da: "Normativa Interna de Seguridad- Ayto. Zarautz.docx")

14 LANGILEEN BETEBEHARRAK

Zarauzko Udalak kontratatutako edonolako zerbitzuak burutzen dituzten edo Zarauzko Udaleko zuzendaritzapean dauden udal erakundeko kide guztiak, enpresak eta hirugarren pertsonak derrigortuta daude Informazioaren Segurtasun Politika eta Segurtasun araudia hau ezagutu eta betetzera, zein Udal departamenduen bitartez langileengana iritsiko den.

Gertakizun bat detektatuz gero, langileek segurtasun gertakizunak jakinarazteko prozedurak erabili beharko dituzte.

Informazio sistemak erabiltzeko, administratzeko eta eragiketarako egiteko ardura duten pertsonak sistemak segurtasunez erabiltzeko formakuntza bat jasoko dute.

(Langileen funtzioak eta betebeharrak dokumentu honetan garatzen dira: "Normativa Interna de Seguridad- Ayto. Zarautz.docx")

15 HIRUGARREN ALDERDIAK

Zarauzko Udalak zerbitzuak beste erakunde batzuei **eskaintzen** dizkionean edo beste erakunde batzuen informazioa erabiltzen duenean, Informazioaren Segurtasun Politika honen berri emango die, Informazioaren Segurtasun Batzordeen koordinaziorako bideak ezarriko dira eta segurtasun gertakizunen aurrean erreakzionatzeko jarduera prozedurak zehaztuko dira.

Zarauzko Udalak hirugarren baten zerbitzuak **erabiltzen** ditunean edo hirugarren bati informazioa uzten dionean, Segurtasun Politika honen eta zerbitzu edo informazio horri dagokion Segurtasun Araudiaren berri emango zaie. Aipatutako hirugarren alderdi horrek araudian ezarritako betebeharren menpe gelditzea onartu beharko du eta, araudi hau betetzeko eragiketa prozedura propioak gara ditzake. Gertakizunak jakinarazteko eta ebazteko prozedura zehatzak ezarriko dira. Hirugarren alderdiko langileak segurtasun kontuetan behar bezala kontzientziazatuta daudela bermatuko da, gutxienez Politika honetan ezarritakoaren maila berean.

Hirugarren alderdi batek Politikaren alde bat orain arte azaldutakoaren arabera bete ezin duenean, Informazioaren Segurtasun Arduradunarengandik txosten bat eskatuko da, non dauden arriskuak eta hauek konpontzeko moduak zehazten dituen. Aurrera jarraitu aurretik, informazioaren eta eragina jasan duten zerbitzuen arduradunek eta DBAOean aurreikusitako tratamendu arduradunak txosten hau onartu beharko dute.

*(Hirugarren alderdiekin izan beharreko segurtasun neurriak dokumentu honetan garatzen dira:
"Normativa Interna de Seguridad- Ayto. Zarautz.docx")*

ALDAKETEN HISTORIA

BERRIKUSKETA	DATA	ALDAKETA
01	2018/9/3	Hasieran idatzitakoa.
02	2018/9/28	Arduradunen inklusioa
		-